



ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, ZEINAREN BIDEZ JAKIN NAHI BAITA ZER IRITZI DUTEN IRUÑEKO UDALAREN EUSKARAREN UDAL KONTSEILUAREN ERREGELAMENDU ORGANIKOA EGITEAK UKITZEN AHAL DITUEN HERRITARREK ETA ORDEZKARITZA-ERAKUNDEEK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da Administrazio eskudunaren webgunearen bidez, zeinean jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauak ukitzen ahal dituen subjektuek eta ordezkaritzarik zabalena duten erakundeek honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onespeneraren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Dokumentu honen xedea da kontu horiei erantzutea eta **Iruñeko Udalaren Euskararen Udal Kontseiluaren Erregelamendu Organikoa** sortu aurreko kontsultaren oinarri izatea, arauaren hartzaile izaten ahal direnek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak

Euskararen Udal Kontseiluaren Erregelamendu Organikoa egitea, Udalak hirian euskararen egungo errealitatea hobetzeko politikak gauzatzeko egiten duen apustuaren ondorio da. Errealitate hori Gobernu-taldeak aurkeztutako eta EH Bildu, PSN, Geroa Bai eta Contigo-Zurekin taldeek sinatutako **akordio politikoaren esparruaren** edukian jaso zen, eta 2025eko ekainaren 3an eman zen eduki horren berri Herritarren Aferen Batzordean. Akordioan euskara **hizkuntza gutxitu** gisa deskribatzen da, eta esaten da Udalaren ardura dela egoera horri buelta ematea; horretarako, euskararen erabilera babestu eta sustatu beharko du hiriko bizitzaren eta udal-administrazioaren esparru guztietan.

Zehazki, azken helburua da Iruñeko Udalaren Euskara Normalizatzeko I. Plana egitea eta idaztea, euskararen erabilera, ezagutza eta prestigioa handitzera bideratutako hainbat ekintza biltzeko xedez. Planean proposatutako ekintzen barruan sartuko da **“Euskararen Udal Kontseilua”** sortzea, euskararen sustapenari lotutako pertsona eta entitateen parte hartzerako organo gisa.

Honako hauek osatuko dute organo aholku-emaile hori: udal-talde politikoen ordezkariak, Euskara Zerbitzuko teknikariak, euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko lanean diharduten elkarteetako kideak eta Iruñean euskararen gizarte-prestigioa handitzeko lan



egiten duten entitateetako ordezkariak. Osaera aintzat hartuta, asmoa da Iruñeko askotariko herritarrek dituzten beharrei eta interesei erantzuna ematea. Kontseilua arduratuko da Hizkuntza-normalizaziorako Planaren jarraipena egiteaz eta proposatzen diren ekintzen garapena baloratzeaz.

Beraz, esparru ordenatu eta garden bat izatea beharrezkoa da, Euskararen Udal Kontseiluaren funtzionamendua, erabakiak hartzea eta bertako kideen parte-hartze egokia erraztuko duena.

Arau hori onesteko beharra eta egokitasuna

Hizkuntza-eskubideak oinarrizko eskubideak dira eta pertsonei haien hizkuntza erabiltzeko aukera bermatzen diete, hala arlo pribatuan nola publikoan, hizkuntzagatiko inolako diskriminaziorik gabe. Besteak beste, honako alderdi hauek biltzen dituzte eskubide horiek: zerbitzu publikoak, hezkuntza, informazioa, herritarren partaidetza eta administrazio publikoekiko harremanak ordenamendu juridikoak aitorturik dituen hizkuntzetan izatea.

Hizkuntza-eskubideak babestea eta sustatzea ez da diskriminazio-egoerak saihestera mugatzen; aitzitik, berekin dakar botere publikoek neurri positiboak hartzea eskubide horien benetako egikaritzea ahalbidetuko duten baldintzak sortzeko. Euskarari dagokionez, horrek esan nahi du euskararen erabilera, normalizazioa eta transmisioa bultzatzera bideratutako hizkuntza-politikak sustatu behar direla herritarrek administrazioarekiko harremanetan eta gizarte-bizitzaren esparru guztietan hizkuntza hori libreki hautatzeko aukera izanen dutela bermatzeko.

Testuinguru hori aintzat hartuta, euskara hizkuntza gutxitua dela kontuan hartuko duten hizkuntza-politikak garatzeko eta sustatzeko konpromisoa hartzen du Iruñeko Udalak. Hiri elebiduna eraikitzen jarraitzeko asmoz, Euskara Sustatzeko Hizkuntza-normalizaziorako I. Plana osatzen ari da. Dokumentu estrategikoa da, 4 urteko iraupena izanen du (2027-2031) eta Udalaren jarduna finkatuko du hizkuntzaren arloan.

Hori horrela, beharrezkoa eta egokia izanen da Erregelamendu Organikoa onestea, Iruñeko Udaleko Euskararen Udal Kontseiluarentzat antolamendu-esparru argi bat ezartzeko aukera emanen baitu. Honekin batera, euskararekin zerikusia duten gaietan lotura edo interesa duten pertsona, entitate eta erakundeen parte-hartzea eta lankidetzak erraztuko du. Era berean, Kontseiluaren funtzionamendua antolatzen lagunduko du, haren osaerari, eginkizunei eta bilkura-araubideari buruzko alderdiak zehaztuz, eta euskararekin zerikusia duten udal-eskumenen erabileraren gardentasuna, segurtasun juridikoa eta eraginkortasuna indartuko ditu.

Araudiaren onarpenari eta ondorengo Euskararen Udal Kontseiluaren sorrerari esker, honako hauek lortuko dira: gizarte-eragile desberdinen inplikazioa bultzatzea, eta Udalaren jarduna bideratzea eraginkorragoa izan dadin euskararen erabilera sustatzeari eta herritarren eskubideak babesteari dagokienez.



Arlo honi dagokionez Iruñean udal-mailan garatzen den lehenengo ekintza-plan estrategikoa da, Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarriak ematen duen erantzukizun publikoa bere gain hartuz egiten duena, lege horrek Nafarroako toki-erakundeak berariaz gaitzen baititu haien eskumenen esparruan euskararen erabilera arautu edo sustatzeko ordenantzak onesteko. Xedapen horrek aitortu egiten du udalerriek zeregin aktiboa dutela hizkuntza-politiken garapenari dagokionez, eta, era berean, estaldura juridikoa ematen du herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzera eta toki-esparruan euskararen erabileraren normalizazioa sustatzera bideratutako partaidetza-, aholkularitza- eta plangintza-tresnak abian jartzeko, hala nola Euskararen Udal Kontseilua.

Arauen helburuak

Erregelamendu Organikoaren helburu nagusiak hauek izango dira:

- Euskararen Udal Kontseiluaren izaera eta helburua arautzea.
- Osaera eta kideek parte hartzeko oinarrizko arauak zehaztea.
- Euskararekin zerikusia duten gaien esparruan bere funtzioak ezartzea.
- Funtzionamendu-, deialdi- eta bilkura-araubidea zehaztea, bai eta erabakiak hartzea ere.
- Iruñeko Udalaren eta arlo horrekin lotutako pertsona, entitate eta erakundeen arteko parte-hartzea, koordinazioa eta elkarriketa bultzatzea.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

Adierazitako helburuak lortzeko aukera posibleak baloratzeko, hainbat aukera hartu dira kontutan, bai arautzaileak, bai ez-arautzaileak.

a) Neurri zehatzik ez hartzea

Lehenengo aukera, egungo egoerari eustea izango litzateke, Kontseilua benetan eratu gabe eta berariazko araurik onartu gabe.

Honek aukera emango luke herritarren partaidetzarako egungo mekanismo orokorre eusteko, bai eta Udalaren eta euskararen sustapenarekin zerikusia duten entitate eta erakundeen arteko harremanetarako ohiko bideei.

Dena den, aukera hori baztertu egin da, ez lukeelako esparru egonkorrik sortuko Euskararen Udal Kontseiluaren osaketa, funtzio eta funtzionamendurako.

b) Herritarrek parte hartzeko mekanismo orokorrak erabiltzea

Bigarren aukera litzateke, euskararekin lotutako parte-hartzea, Iruñeko Udalaren Herritarren Partaidetzarako Erregelamenduan aurreikusitako organo eta mekanismo orokorren bidez soilik bideratzea.



Eredu horrek lehendik dauden parte-hartze egiturak baliatzea ahalbidetuko luke, eta organo berezi bat sortzea saihestuko luke. Hala ere, mekanismo horiek soilik erabiliz gero, ezingo litzateke udal hizkuntza-politikari eskainitako gun e espezializatu eta iraunkorrik izan euskararen arloko aholkularitza, jarraipen eta proposamen funtzioetan. Iraunkorra ez izateak eta berariazko araudi bat ez egoteak, parte-hartze organoaren jarraitutasuna, egonkortasuna, osaera eta funtzionamendu homogeneoa zaildu lezake.

c) Parte hartzeko araudiz kanpoko mekanismoak sortzea

Beste aukera bat, parte hartzeko formula malguak ezartzea litzateke, lan-mahaien, foroen, elkarte eta erakundeekin aldizkako bileren, lantaldeen edo euskararekin zerikusia duten udal-jarduera jakin batzuei buruzko kontsulta puntualen bidez.

Formula hauek abantailak dituzte malgutasunari eta unean uneko behar zehatzetara egokitzeko gaitasunari dagokienez. Hala ere, iraunkorrak ez izateak eta berariazko araurik ez egoteak parte-hartzearen egonkortasuna, pertsona eta erakunde parte-hartzaileak zehaztea, lanekin jarraitzea eta organoaren eginkizunak mugatzea zaildu lezake.

d) Lehendik dagoen udal-xedapen orokor bat aldatzea

Ez da aukera egokitzat jotzen, ez baitago Euskararen Udal Kontseiluaren berariazko erregulaziorik, aldatu daitekeenik.

e) Administrazio-egintza bat onartzea

Aukera hau ere ez da nahikoa, administrazio-egintza batek aukera ematen baitu erabaki zehatzak hartzeko, baina ez Kontseiluaren antolamendu- eta funtzionamendu-araubidea modu orokor eta iraunkorrean ezartzeko.

f) Euskararen Udal Kontseiluaren Erregelamendu Organikoa onartzea

Erregelamendu Organikoa onartzea alternatiba egokitzat jotzen da, Euskararen Udal Kontseiluaren osaera, eginkizunak eta funtzionamendua oro har arautzeko aukera ematen duelako, bai eta euskararen sustapenari lotutako erakundeen parte-hartze mekanismoak arautzeko ere.

Honek organoari egonkortasuna eta segurtasun juridikoa emango lioke, parte hartzeko esparru iraunkorra bermatuko luke eta kideen eskubide zein betebeharrak eta funtzionamendu-arauak gardentasunez ezarriko lituzke.

Era berean, Kontseilua Iruñeko Udalean dagoen herritarren partaidetzako ereduarekin modu koherentean artikulatzea ahalbidetuko luke.

Horregatik guztiagatik, Erregelamendu Organiko bat egitea tresna egokitzat jotzen da, lortu nahi diren helburuetarako.

Ondorio hori, kontsultaren emaitzari eta ukituak izaten daitezkeen herritarrek, entitateek eta elkarrekin, bai eta gainerako pertsona edo entitate interesdunek egin ditzaketen ekarpenei kalterik egin gabe adierazten da.



Zehazki, kontsultak aukera emango du herritarrek eta erakunde interesdunek Kontseiluaren osaerari, ordezkatuta egon beharko luketen sektoreei, haien funtzioei, parte hartzeko mekanismoei, bileren maiztasunari eta funtzionamendu egokia bermatzeko garrantzitsua den beste edozein gairi buruz duten iritzia baloratzeko.

Parte hartzeko epea

2026ko irailaren 10etik 23ra bitarte.

Ekarpenak bidaltzeko:

euskarazerbitzua@pamplona.es